

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Sare sozialetatik (Instagram eta Facebooketik) eta irratitik publizitatea egingo dugu, modu honetan bezeroen arreta erakarriko dugu eta guregana hurbilduko dira. Saskibaloia eta futboleko estadioetan publizitatea egin dezakegu atsedenaldia, horrez gain sare sozialeko influencerrei hitz egin ahal diegu gure enpresa frogatu ondoren jende gehiagori ailegatzeko. Gero webgunearen bidez harremana izango dugu ere, non zerbitzu automatizatua webgunearen bitartez emango dugun eta bezeroek beren eskabideak egin ahal izan ditzaten denda fisiko batera joan behar izan gabe.

Horretaz aparte zerbitzu pertsonala izango dugu. Gure lokalean bulego txiki bat izango dugu, zeinetan informazioa emateko eta zalantzak argitzeko pertsona bat egongo den.

Behin bezeroak finkatuta ditugunean eta irabaziak izaten hasten garenean bezeroak fidelizatzeko eskaintzak egingo ditugu. Adibidez: behin bezero batek bidaia bat egin eta gero, hurrengo bidaiari deskontu txiki bat izango du %5 ekoa, esaterako. Gainera, gure enpresa gomendatzen badute, sari moduko bat izango dute. Esaterako, pertsona batek beste bati gure enpresa gomendatzen badiu eta gomendioa jaso duenak gurekin bidaia bat egiten badiu, gomendioa egin duen pertsonak deskontu edo sari berezi bat izango du hurrengo bidaiari. Horretaz aparte, zozketak egin ditzazkegu sare sozialetan gure bezeroen artean, horrela interneten bidez jende gehiagori ailegatu zaio gure enpresari buruzko informazioa.